

1. Amak zer dio?
2. Eta Piarresek?
3. Jaun erretora zertako aipatzen dute?

(I) AMA SEMEAK 2

Horra zertako, ama, gobernioak ez daukun baitezpada kontrabanda *debekatzen*, bainan bai, aintzinetik erraiten ere daukun bezala, *eskuetarik hartzan*, ahal duen aldi oroz, ongi gaziturik uzten gaituela, guardek haren aztaparretarat bildu gaituztelarik. Horrela, gobernio, guarda eta kontrabandixtak, oro bizi ditezke, zoin bertzea baino hobeki,... kontrabandixtak gaizkiénik.

—Ori, haurra, ez dakit bada nik, horrenbertze ez dautazu erran egundaino. Bainan, nahi zinduzket bertzelakatua. Ah! —hain adixkide duzularik— jaun erretorak nola ez zaitu bada kontrabanda madarrikatu hortarik oraino gibelatua? Etxeko oilasko parerik ederrena eramanen bainioke, mirakuilu hori egin baleza sekulan!

—Oilaskoak begozi oilategian, ama, edo eremotzu erretorari, kontrabandarik aipatu gabe, heldu diren Phesta-Berrietan jan ditzagun harekin, Jainkoaren lorian. Jaun erretorak barkatzen daku kontrabandan ibili garencan, bainan ez dauku erranen, ez dezagutu erran kontrabandan ibil gaitezen. Hori sobrakina¹³ galda ginoike. Bertzalde, gure etxe-lanetan nahiago gintuzke harek ere, zuk bezala, ama, zeren, askotan etxeko segida galtzen duen kontrabandixt batek baino gehiagok. Aithor dut hori, ama, eta ahalketzen ere naizela nere lagun zonbaitez...

Bainan, noiz holakorik ikusi diozu zure Piarres? Othaskaz othaska ibili ondoan, noiz egundaino aztaparretarak, adaretari¹⁴ bihamunean berriz lotzeko?...

Hori hola da engoitik,¹⁵ ama gaixoa. Zuhurrek eta zure aita zaharrak odolean emanaz errenkuratzet¹⁶ zaizkit gaur! Eta gero, Eskual-Herri ez zen lehenago kontrabandarik, zeren ez zen *mugaharririk*. Zertako eman dituzte muga horiek Danixariako edo Irungo Zubieri hurbil? Eskualduna ez othe da *berez bere* ibili behar. Iral-Herri guzik mendietan? Gure lehenagoko zuzenetarik, hori baino ez othe ginuen begiratu!¹⁷ behar, hori bederen ez othe zuikulen utzi behar hego-aldetik edo iphar-aldetik guri nausitu. Erresumek?

Ez naiz batere Frantses-Herritik zeiartu¹⁸ beharrez ari, ama, zeren maitexko dutan Frantses-Herri handia. Bainan, behin ere ez baitiot aipatu, ongi jakin nahia nireke, jaun erretorak zer othe dion hortaz? Kastillara batre gabe, eskuadrun mendi guzietako zuzenen jabe eskuadruna! Hoi hoi loria, ama!

—Zure loria eta moria guziaz hirri egin lezake, ori, gure jaun erretorak. Ametsak ez du egundaino hazi gizonik, Piarres...

—Hala hala da eta, ama. Ametsetako lukainkez bertzerik behar dut gaur, eta, othor, xingar¹⁹ zasla²⁰ bat ona erreko dautazu, xahakoa²¹ nik bethetzeko artean Ira-lekutik aita ethorri ere gabe, han harat urrun joana niteke, nere lagunengana.

—Bar, eta, zure amak, erran dituenak oro debaldetan erranik, lorik gabe, dena grinetan, othoitzean artzea²² duke gau luze itsusian!

Berbién

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Uztet gaituela 32. Nahi zinduzket
- 33 Ez dezagutu 34 Galda ginoike
31. UKAN. Conj. transitive à clôt direct.
- 32 Pronom personnel = gu = nous.
Indicatif = Présent.

Zuk gaituzu	= Vous nous avez	{ ikusten gaituzu = Vous nous voyez
Harek gaitu	= Il nous a	
Zuek gaituzue	= Vous nous avez	
Heiek gaituzte	= Ils nous ont.	

Imparfait

- | | | |
|-----------------|--------------------|---|
| Zuk qui duzen | = Vous nous aviez | { Ikusten
ginduzun
=
Vous nous
voyiez |
| Harek ginduen | = Il nous avait | |
| Zuek ginduzuen | = Vous nous aviez | |
| Heiek ginduzten | = Ils nous avaient | |

32. Pronom personnel = zue = vous

Futur (à sens potentiel)

- | | |
|------------------|---------------------|
| Nik zintuzket | = je vous aurais |
| Harek zintuzke | = il vous aurait |
| Guk zintuzkegu | = nous vous aurions |
| Heiek zintuzkete | = ils vous auraient |

Lagundu nahi zintuzket: je voudrais: je veux faire

Conditionnel Forme I.

- | | |
|-----------------------|-----------------------|
| Nik ukaren zintuzket | = je vous serieis |
| Harek -ii- zintuzke | = il vous serieait |
| Guk -ii- zintuzkegu | = nous vous serieions |
| Heiek -ii- zintuzkete | = ils vous serieaient |

Ibasibio zintuzket: je vous verrai.